

2002ko iraila

8. zenbakia

aikor!



txorierriko aldizkaria

Txorierriko Koridorea:

TRAFIKO ARAZOARI

KONPONBIDE

AZKARRA



IKASTURTE BARRIA PRESTATZEN



Egizu

Hizketa zentrala

Ikasketa Gidatua eta Pertsonalizatua

Eskolako Orientazioa eta Errekuperazioa



Kolaka Arana, 2. 48100 Derio



ZAMLAN
AKADEMIA

HIZKUNTZAK, INFORMATIKA, IKASGAIK

Erretamako ibarribidea 73, Derio
94 454 01 11
www.zamlan.net

Iturrizaga, 44 - Bijo 2
Tel./Fax 94 453 42 40
www.zamlan@euskaltel.net
48004 SANTUTXU, BILBAO (Bizkaia)

ESTUDIOS

Pakorren Plaza, 3-behea
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 944 54 50 13

Kolaka Plaza, 2 - 4ºD
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel.: 944 54 27 19

IKASTEGIA

IDIOMAS EVERGREEN

INGELES - FRANTSES - ALEMAN

Gernikako arbola, 2 behea

Tel.: 94 454 01 24

48160 Derio

www.idiomasevergreen.com



INGELES KLASE PARTIKULARRAK

TXORIERRIKO ETORBIDEA, 14

ZAMUDIO

TEL.: 94 452 03 31



ikasi, edonola egin dezakezu

euskara ikasteko baina,

hobe duzu aek-ra etorri

euskara ikastaroak

zure euskara

berrindartzeko eta

zure asterketa

prestatzeko

aek
izena eman

**txorierriko
aek euskaltegia**

tel. 944 543 967

Euskara "txinon" bada zuretzat,
si el Euskara te suena a chino,

Ni bainin, badrin,
badrindulla, duloi...



UDAL EUSKALTEGIAK...

BULEGO ORDUTEGIA

Göber: 09:00 - 13:00

Aratsaldez: 16:30 - 20:00



Ni txorierrikoan
nabil.

...y el Euskara te sonará bien.
...eta Euskara zurea egikyo duko.

UDAL



UDAL EUSKALTEGIA
Bulegoa: 2º - 48100 Derio
Tel.: 94 452 03 31

ELIZA ETA POLITIKA

Kontu argia da, urtez urte, gero eta jende gehiagok, gazteen artean batez ere, elizari bizkar emanda eratzen duela bere bizitza. Hau horrela izanik, pentsa daiteke elizaren eta politikaren arteko gorabeherak ez daukatela erakargarritasunik, ez dutela ez "gantxorik" ez gaurkotatzen.

Elizak gizasemeen onerako eta gizasemeen artean burutu behar du bere egitekoa eta gizasemeok, ezinbestean, herriren bateko herritar gara eta herri horren mugetan eta baldintzetan bizi gara eta, beraz, herri horretan txertatu gabe eta herriaren baldintzak kontutan hartu gabe elizak ez du ezer egiterik.

"Elizaren betebeharrak –zioen oraintsu Etxegarai kardinalak– kontzientziak iratzarraztea eta hezteak da, gizonak justizia eta bakezko gizarte baten altxatzen laguntzeko".

Honenbestez, lekuz leku herriaren zerbitzari izan behar duen elizaren jarre-

ra eta jokabidea bideratzeko honako puntuak izan beharko lituzke kontutan.

1. Gizon eta emakumeak dira erlijio bateko sinesmena onartu eta bizi dutenak, baina, jakina, gizon eta emakume horiek kultura bat dute. Horrela, bada, fedea sinestudunen kultura konkretuaren arabera taxutzen da eta kultura horren bidez iristen da fedea norbanakoaren barne bizipen izatera.


Horregatik jatorrizko kultura propioa duen Euskal Herrian, elizak –kristau elizak dihardugu, gehienbat– emasabel horretan eskaini behar die herritarrei fede horren aldarrikapena eta fede hori bizi izateko aukera.

2. Bi iturbururen emaitzetatik elikatu behar du kristau bizitzak: errebelazioz abiarazitako tradizioz eta tokian tokiko kristauek hemen eta orain bizi duten egoeratik. Tradizioa mendez mende zentzua eta egitasuna metatuz joateko irekirik irauten duen bidea dugu. Egoera,

aldiz, elizaren mezua hots egiten zaien gizon-emakumeek bizi duten testuinguru soziokulturala eta existentziala ditugu.

Herriaren egoeraren erronkei ez erantzutetik datoz maiz elizatik alde egiteak.

Laburbilduz, zera esan daiteke, politikagintza herrigintzaren parte bat baino ez da herritarren nahien eta beharren arabera burutu behar dena eta elizak bideratu behar duen askapen eta salbamen egitekoa herrigintzan txertatuta eskaini eta gauzatu behar du, ezinbestean.



Testua: Martin Orbe (Abadea)



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: totoan@topagunea.com
aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Patxi Gaztelumendi, Arantzazu Mendiguren, Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Alberto Legarreta, Mari Tere Onaindia, Belen Gana, Amagoia Guezuraga, Mariasun Abona, Maite Aranburu, Asier Oruetxebarria.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Oihana Astobieta, Basabildotza, Puri Martinez, Kua, Lourdes Lasuen, Juantxu Bilbao, Derioko Nekazaritza Eskola (Mendikoi).

Zuzentzailea: Alberto Mtz. de la Cuadra
Publizitate eta banaketa: Arantza Atxutegi
Maketatzailea: Ainara Torres
Inprimategia: Gertu
Ale kopurua: 4.750
Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322



ZER NON

-Eritxia.....	3
-Laburrak eta albisteak.....	4
-Erreportajea	
Txorierriko korridorea.....	10
-Zer deritzozu.....	13
-Sabin Gaztañaga.	
Arrastroa utzi zuen langilea.....	14
-Pic Lenin 2002.....	16
-Baserri mundua.....	18
-Teknologia.....	19
-Elkarrizketa.	
Ander Garitano.....	20
-Ibilbide bat Larrabetzun zehar.....	22
-Sukaldaritza.....	24
-Denbora pasa.....	25
-Agenda.....	26

LOIU: SAMIELAK LAUROETAN historia eta ospe handiko jaiak

Irailaren 27tik 29ra bitartean ospatuko dira Loiuko auzo polit honetako San Migel jaiak.

Lauroetako jaiak betidanik izan dira entzute handikoak. Orain berrogeita hamar urte ingurura arte ez egoan Laurotarainoko bide zabalik, antzinako kal-tzada zaharrak besterik ez. Baina orduan be jende asko etorten zan San Migel jaietara; batzuk astoz edo zaldiz eta gehienak oinez.

Larrakoetxeko tabernaria zan txosna-ren arduraduna eta Larrakoetxetik Lauroetaraino astoz edo gurdiz eroaten zituan txosnarako behar ziran gauzak. Orduko erromeriak, erromeria ziran!!

Geroago, 1949an bide barria ("kami-noa") zabaldu zan ermitaraino, eta ordutik aurrera askoz erosoago zan haraino hel-tzea, bizikletak eta motor gitxi batzuk be baegozan eta. Loiuko autobusak bere hainbat joan-etorri egin zituen urte hareetan eta honela jarraitu eben jaiak 1968ra arte. Orduan etenaldi bat sortu zan eta zortzi urte geroagora arte ez zan jairik ospatu.

Etenaldi honen barruan, 1972. urtean Lauroetako eta Loiuko gazte talde bat saiatu zan urte hareetako jaiak antolatzen. Euskal giroko jaiak egin nahian, kantariak, bertsolariak eta abar kontratatu ziran, baina dan-dana prest egoala, jai egun bezperan, "Goiko ordena" heldu zan eta jaiak debekatu. Mikel Zaratek holan hasi eban egun haretan meza bertso bat kantatuz: "Por orden gubernativa jaiak debe-katu ..."

Beste lau urte pasa ziran jaiak ganoraz ospatu barik. Baina 1976an Lauroetar eta Loiutar gazte talde handi eta adoretzu batek hartu eban jaien ardurea eta gaur arte behintzat gogor jarraitzen dau.



Historiari errepasso labor bat egin ondoren, ikus daigun zer eskeintzen dauskuen aurtengo jaiak. Lehen esan dogun lez, hiru egunez ospatuko dira, baina ekitaldirik interesgarrienak irailaren 29an, San Migel egunean, izango dira.

Goizean kalejirak eta 11:30etan meza ermitan.

Egurdiko 12:30etan Artzain Txakurren XIX. Erakusketa.

Arrastiko 6,30etan. Berangoko "Simon De Otxategi" dantza taldearen ekitaldia.

Eta arrastiko 8etan bertsolariak. Azken hogeita bost urteotan ez da falta izan bertsolariak Lauroetako jaietan. Izan be, Laurotarren artean handia izan da bertsozaletasuna.

Eta jaiak amaiera emoteko bertsolariak eurak kantatuko dabe ahuntzaren zozketan atara beharreko zenbakia. Ehun urte edo gehiagoko ohitura da Samieletan

ahuntza jatea eta ia beste hainbeste ahuntzaren zozketa egiten da. Beste leku batzuetan gauza ezberdinak zorteatzen dira, baina hemen beti ahuntza.

Zozketarako papeletak erosi dozeze-noi zorte on eta guztioi jai zoriontsuak.

Aipatutako ikuskizunak gozatu eta egun ederra pasa gura badozue, DANOK SAMIELATARA!!

Testua: Juantxu Bilbao

SAN MIGEL EGUNA ZAMUDION

Urtero egiten dan moduan, irailaren 29an, San Migel eguna ospatuko dabe zamudioztarrek, Daño auzoko izen bereko baselizan. 12,30etan mezea izango da eta ondoren bertaraino doazenentzat lunch-a izango da.

COPISTERÍAS PROPLANOS

FOTOCOPIAS B/N Y COLOR
COPIAS DE PLANOS GRAN FORMATO
REDUCCIONES Y AMPLIACIONES DE PLANOS
PLOTTING Y ESCANEADO DE PLANOS
ENCUADERNACIONES Y PLASTIFICACIONES
IMPRESIÓN RÁPIDA (TARJETAS DE VISITA, FACTURAS,...)
PAPELERÍA INDUSTRIAL: COPIADORA, PLOTTER, IMPRESORA, A3, A4
CONSUMIBLES DE OFICINA, CARTUCHOS IMPRESORAS FAX
SERVICIO DE FAX, INTERNET Y AUTOCAD E INFORMÁTICA

- SERVICIO GRATUITO DIARIO A EMPRESAS DE RECOGIDA Y ENTREGA.
- RAPIDEZ Y SERVICIO AL MEJOR PRECIO

URDULIZ
Edificio Mecánica de la Peña
TEL. 94.676.81.45

URDULIZ
Igiltzera, 6 1ª Planta D
TEL. 94.430.48.18

SONDIKA
ERREMENTERI 20 LOCAL
TEL. 94.453.57.91

Email: Proplanos@Sarenet.es
Web: Proplanos.eukalnet.net



DERION SAN MIGELEK LIBRATZEN GAITU GAITZETIK

Sinesgabetasuna eta eszeptizismoa nagusi diren garaiotan, ematen du koitaduen kontua dela alaitasuna eta zoriontasuna arkanjelu batek ekarriko digula sinestea. Bada, dela Jainkoak hala gura izan duelako, dela jendeak behar dituelako, hara non diren Derioko San Migel Jaiak.

Dagoeneko badira urte asko, 1964an borondate handiko eta baliabide urriko herritar talde batek jai ekitaldi xume batzuk antolatu zituztela, nori eta deabruari gogor egiteko eta armonia eta adeitasuna zabaltzeko, hain zuzen ere, komunitate honetan, zeinetan esperantzak eta lanak Euskadi gaur den modukoa egin duten.

Ordutik hona dena aldatu da.

Baina jatorri oneko auzo honetan badago emoziozko zerbait, gizaldirik gizaldirik geure barruan gorde eta besteei ematen jakin duguna: elkarbizitzaren espiritua; izan ere, huraxe da auzo honetako lagunak bultzatzen dituen San Migel Jaietan parte hartzea, ondo pasatzera eta familia-rekin elkartzera.

Jai herrikoaren kultura mundu honetatik askatzeko eta pausaldi bat egiteko modu bat dela ulertu behar dugu, mundu hau San Migel arkanjelua eta deabruak, itxura eta ideia ezberdinen azpian, elkarrekin borrokatzeko egunero zapaltzen dutena da eta. Oraingoan ere, jai hauek, jendea erakartzeko duten ahalmenarekin,

Testua: Kua

topagune egoki bat ezarriko digute eta bertan nagusituko da salbuespenik gabeko elkarbizitza.

Luze egin daiteke berba jai hauen ezaugarri buruz, baina gure ibar honetako beste batzuk bezala, euren asmo bakarra da, tradizio eta usadioen bidez, bizi kalitatea hobetzeko jarraibide bat erakustea.

Datozen asteburu bi hauetan hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu dira mundu guztiarentzat. Beraz, merezi du denbora apur bat gordetzea, geldialdi bat egiteko eta era horretan jai hauen egiazko zentzua ulertzeko.

Badakizu gonbidatuta zaudena, arkanjelurekin elkar hartuta, denok barruan daroagun deabrua infernura jaurtitzeko.

Zeuk ere idatz dezakezu San Migelen historia. Etorri eta gozatu!

GORA SAN MIGEL!



2002-KO MIKEL DEUNA JAIEN EGITARUA

27. Ostirala

19:00 Jai guneko txosnak zabalduko ditugu.
 ODOL ARGIA fanfarreak giroa alaituko du
 19:30 Txitxiburduntzi eta sangria denontzat .
 Pregoia eta txupinazoa
 22:00 Kalejira gure DEABRUA eta TXATUNGA BEMBE taldearekin
 00:00 Gau dantza IRATXO taldearekin.
 Atsedendian ikuskizun erotikoa izango dugu.
 04:00 IRATXO taldea. Geroago diskoteka

28. Larunbata

10:00 Goizeko traka
 10:15 Kalejira txistulariarekin
 11:00 Umeentzako jolasak
 11:30 Txapelketa gastronomikoa
 12:00 Taekwondo erakustaldia
 14:00 Lapikoen aurkezpena. Sarien banaketa:
 15:00 Bazkari herrikoia. Konpartsen txapelketak
 20:30 Herrialdeen arteko topaketak
 -Derioko Euskal Dantzak Lainomendi
 -Astrabuduko Centro Extremeño
 -Sestaoko Centro Gallego

00:00 Gaudantza NUEVO TALISMAN taldearekin
 02:00 Traka super indartsua
 02:00 NUEVO TALISMAN taldea
 07:00 Txokolatada

29. Igandea

08:00 Sokamuturra
 10:00 Goizeko traka
 10:15 Kalejira txistulariarekin
 11:00 Haurrentzako parkea
 16:30 Sokamuturra
 18:30 X. ZEZENKETA
 20:00 Gau dantza KOSTA ALAI taldea

4. Ostirala

19:30 Sagaroz egindako txorizoa denontzat
 21:00 Karaoke txapelketa
 00:00 Kontzertua CAÑAMAN taldea. Gau dantza URGABE taldearekin eta geroago diskoteka

5. Larunbata

12:00 Euskal ezkontza
 13:00 Euskal dantzak
 14:00 Bazkari herrikoia. Txapas eta El Rincón tabernen eskutik
 17:30 Euskal Herriko kirolak
 23:00 Gau dantza, DIAMANTE taldearekin eta geroago diskoteka

6. Igandea

12:00 Bilbainadak INDARRA taldearekin
 12:30 Nagusientzako lunch-a
 18:00 POZGARRI SALOIAKO DANTZA LEHIAKETA
 22:00 Konpartsen sari banaketa
 23:00 Diskoteka
 00:00 Jaietako Deabrua erreko dugu jaietamaiera emateko

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
 30 minutas inguruko
 Tarrón Kalea, 9
 (Bigo TAMUDIN (Bizkaia)) Tel.: 94 454 26 75

OKINDEGIA-DASTALEKUA
 Aretxalde, 64
 Iel.: 94 455 50 36 48196 11 /AMA

Eguneko menua eta
 Menu berezia
 JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

UDALETXEA BARRIZTEN HASI DIRA ETA UDAL BULEGO BARRIAK IPINI DITUE ZAMUDION



Iraillean hasi dira Zamudioko Udala barriztuteko obrak. 200 miloi pezeta inguruko aurrekontua daukiezan lanak urtebeteko epean egitea aurreikusita dago.

Kanpoaldeko itxura bardin jarraituko dauan arren, barrua erabat aldatuko da. Bitartean, Uribebarriko etxebizitzetan izango dabez zamudioztarrek udal bulegoak. Udalak, bertan zituan lonjak atondu ditu herritarrei zerbitzuak emoteko, eta han dira abuzturik hona.

LOIUKO AZOKA, ESKULAN-GINTZA ETA GASTRONOMIA



Aurreko urteetan bezala, aurten ere Loiuko azoka egingo da. Urriaren 20an, goizeko 10etatik arrastiko 14ak arte bertora hurbiltzen diren guztiak aukera ederra izango dute antolatutako ekitaldiekin gozatzeko.

Azoka honek atal bi ditu ondo bereiztuta: alde batetik, gastronomia, Udaletxe aurreko plazan kokatuko dena, eta, bestetik, eskulangintza, frontoian ezarriko dena. Atal biotan erakutsiko diren jaki eta lanak artisauek eginikoak izango dira.

Era berean, giroa alaitzeko trikitalariak eta txistulariak izango dira, baita umeentzako ekintzak ere. Horrezaz gainera, bisitariek ganadu azoka ere ikusi ahal izango dute.

SEKULAKO ERANTZUNA ZAMUDIOKO TXIRRINDUZALEENA

Hamaikagarren aldiz egin zan Zamudion txirrinduzaleen martxa, irailaren 14an. Oraingo honetan eta lehenengo aldiz, Torrelarragoiti industria guneko zirkuitoari 12 buelta emon jakozan 30 kilometroak betetzeko. Orain arte egindakoak Parke Teknologikoan egin dira beti.

Uda guztian falta izan dogun eguzkia lagun izan eben parte hartzera hurbildu ziran txirrinduzaleek. Eta nabarmena izan zan erantzuna.

Aurreko egunetan bizikletei hautsa kendu, gurpilak puztu, eta urteteko orduan 250 inguru gizon-emakume, ume, zahar eta gazte batu ziran. Adin guztietakoentzat pentsatuta dago eta danak jarraitzeko moduko erritmoa daroa irabazlerik ez daukan martxa honek.

Ondoren txahal bat bokadiloetan eta edari gudana banatu zan partehartzaile eta bertaratu ziran beste hainbat lagun artean, Bidekoetxe parkean. Egun ederra aprobetxatuz, giro polita izan zan arratsaldean be.



Restaurante

Kantu-jarduerak

SAN ISIDRO

UBUNTUENAKAN ERANTZUNAKO ETXEA

ESKUNTZAK, BATAKAK, JAUNARITZEAK

-Lanetan sartzeak

-Zerbitzu profesionalak

-Guztizko zerbitzuak

-Guztizko zerbitzuak

Teléfono 94 451 1078 Magillari Zerbitzu, s/ 25

Fax: 94 451 1118 48100 DERIO

CENTRO MASAJE

LASAI

Tratamenduak

- Ultraondas (Ultrasonak)
- Merituzko masajeak
- Oxiopeloidak
- Masajeak
- Limpiaketa korrosiboa

Clínica convalescencia con:

- Cines de aguas (Aeróbicos)
- Baños de la mar
- Climas deportivos
- Fisioterapia

C/ Euzkadi, 4 (B. 100)

48100 DERIO (Bizkaya)

Tel: 94 411 1078

Mobil: 600 74 24 00

Fax: 94 411 1078

Fax: 94 411 1078

Gantex

GHINTZAKOAK - GINTZAKOAK

Gernikako Arbola Etorbidia, 2

(sarrera Goiko Kaleetik)

Tfnos.: 94 454 20 13

48160 DERIO (Bizkaya)

ZAMUDIOKO KAMARA KORALA KANTA KANTARI FRANTZIATIK

Testua eta argazkia: Amagoia Guezuraga

Uztailaren 10etik 20ra bitartean, Zamudioko Kamara Korala Frantziako helgoalderantz abiatu zan. Lyonen Kantoreen Nazioarteko XXXI. Biltzerra ospatu zan, eta bertan bost egun emon zituen.

Egun horreetan hiria ezagutu eben, Rodano ibai bazterrak ontziz korridu, inguruetako herriak bisitatu, eta bertan bizi diran Deustu, Gasteiz eta Luzaideko euskaldunak agurtu zituen.

Bost egun honeek pasatuta, gure operak hazi egin ziran eta Grenoble, Annency, Aix le Bains, Provenzakoa Aix eta Cassis

herriak ezagutzeko era izan eben. Azkenean, Marsellatik Zamudiora bueltatu ziran.

Egun zoragarriak, toki politak eta beste ohitura batzuk ezagutzeko aukera izan eben. Horretan jarraitzeko prest dagoenez, 2004an Alemaniako Chorfestivalera joateko ahaleginetan dagoz.

Bertan batu ziran 85 abesbatzen artean, 8. zenbakia izan eban Pays Basqueko Zamudioko Kamara Koralak. Entsaioetan abestu...eta halako jende mordo batzen dan tokietan egiten dan moduan "olatuak" praktikatzen.



Hona hemen Zamudioko Kamara Korala eta Mañariko Kirikiño abesbatza, Lyoneko Terreaux plazan, Bartholdiren iturria atzealdean dala.

Derioko probaleku berriaren inaugurazioa

Uztailaren 31n izandako eguraldi txarra zela eta, Santiago jaietarako antolatutako hainbat ekitaldi atzeratu beharra egon zen, besteak beste, Derioko probaleku berriaren inaugurazioa eta Urgabe taldearen kontzertua. Horrexegatik, jaietako batzordekoek ekinga horiek urriaren 26an ospatzea pentsatu dute. Hemen duzue egun horretarako prestatutako egitaraua:

Eguna: **urriak 26**
Lekua: **Derioko probalekua**

Egitaraua

12.00etan

-Derioko alkateak inauguratuko dau probaleku barria eta herriko abadeak bedeinatu.

-Aurrekua.

-Idi probak: hiru idiren indarra neurtzeko proba gogorra izango da.

-Lañesko bikotea

-Jose Angel Bilbaoren hirukotea

17.30 Idi probak (3 bikote)

23.00 URGABE taldeagaz gau dantza



hormigones

de zamudio

WEMBRO DE **AEFHOP**

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

- Hormigoai-kamiol ugariak eta modernoak
- Ezin hobeto kokatutako planta
- Obrarainoko garraio azkarra

Tarrelarrogaiti ind., 7-g • 48170 Zamudio - Bizkaia
Tel.: 94 452 29 70 • Fax: 94 452 31 65
E-mail: hormzամudio@jazzfree.com

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, linbrea eta opariak

Talleri kalea. 5 ZAMUDIO
Tfnua: 94 452 12 75

LEIRE BEGOÑA

ILEAPAINDEGIA

UNISEX ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM BERTIKALA
ESTETIKA
ORDUTEGI JARRAITUA

MUNICIALE ETORBIDEA, 20 - TEL.: 94 454 26 32 DERIO

CANTEROS TRIKUHARRI

HARRI NATURALA
KOKATZEA ETA LANTZEA

BASERRIAK BERRIZATZEA

Unbetxiki, 3
Tfnua. mobilis: 670 51 80 98
48180 LOIUI (Bizkaia)

EUSKERAREN EGOERA

Txorierrik 16.000 biztanle baino gehiago dauz sei herritan banatuta, baina Larrabetzutik Loiura desberdintasunak handiak dira. Herri handiak daukaguz Derio edo Sondika, baina badira 2.000 biztanletara heltzen ez direnak. Herri honeen antolamendua oso desberdina da eta desberdintasun hau euskeraren egoeran be nabaritzen da.

Derio eta Larrabetzu konparatzen badoguz, ez daukie inolako antzekotasunik, Derion euskaldunak ehuneko hogeita hamarraren inguruan dagoz eta Larrabetzun, barriz, ehuneko laurogeira heltzen dira. Beraz, euskeraren erabilera ez da batere homogeneoa gure haranean.

Dana batera hartuta, Txorierrin euskaldunak ehuneko berrogeita bosta gara, elebidunak ehuneko hamazazpia eta erdaldunak ehuneko hogeita hamazortzia.

80ko hamarkadatik aurrera euskeraren jakite maila handitu egin da. Alde batetik, hirurogeita bost urte baino gehiago daukiezanak eta, bestetik, hogeitaz bost urte baino gutxiago daukiezanak dira euskeraren erabiltzailerik handienak.

Gazteengan argi ikusten da eskolatan D ereduak eduki dauen eragina. Horrezaz ganera aitatu behar dira helduak alfabetatzeko dagozan euskaltegiak.

Geure hizkuntzaren etorkizuna bermatzeko bi bide nagusi ikusten dira: hezkuntzaren bidea, ume eta gazteengan, eta lagun eta familien arteko euskeraren erabilkera. Azken finean, euskerarentzako botikarik onena euskeraz berba egitea da.

Testua: Asier Oruetxebarria



Derio: Euskal ezkontza antzetzeko da San Migeletan

Urriaren 5ean, zapatuz, Derioko San Migel jaietako egitararen barruan, Euskal Ezkontza antzetzeko da berriro. Hau da antzetzten den 3. aldia. Lehenengoz Derion bertan egin zen 2000ko urriaren 22an, itzelezko jendetzaren aurrean (gutxi gorabehera, 2.000 ikusle). Bigarrenez Berangon egin zen bertako jaietan.

1.860 lagun inguruko ezkontza da antzetzten dena, ezkontza zibila, bere pertsonai ezberdinekaz: ezkongaiak, gurasoak, herriko notableak, herriko jende xehea, ezkontzako arrea... Antzetzpen honetan Derio bertako talde kultural ezberdinetako ia 200 lagunek parte hartzen dute, eta aipagarria da bertan erabilitako jantziak, herriko emakume taldekoak eginak.




Larrabetzu: herrian ezkondu ezin

Uda honetako albistetik bitxia Larrabetzuko Kepa eta Arrate bikotearena izan da, duda barik. Euren asmoa, bikote askoren antzera aurtien Larrabetzun ezkontza zen, eta ezkontzeko lagun batengana jo zuten, Aintzina Lekue zinegotziarengana. Hori adieraztera udaletxera joan, eta hara non, herriko alkatea den Tomas Ordeñanak ezetz. Derrigorrean berak ezkondu behar zituela, "aurrerantzean Batasunako zinegotziak ez zutela beste inor ezkonduko" adierazi zien Kepa Uriarte eta bere neskalagunari. Harridura hedatu zen Larrabetzun, eta bikoteak publikoki salatu zuen alkatearen jarrera, herrian zabalduetako orrien bitartez. Larrabetzuko alkateak "Maruriko abadeak baino protagonismo gehiago hartu gura duela" salatu zuten besteak beste.

Testua: Patxi Gaztelumendi


FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
Sara Muelin karrozak, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 00 85 - 55
Faxa: (94) 452 11 46




AUTOEN INPORTAZIOA ETA SALMENTA


SANTIMANI 4
TEL. 64870411
64967713



GRUPO "ACOFISA" ASESORES
KONTABLE-FISKAL-LAN-JURIDIKOA

Luis Fernando Aguirre

Mateo Herasmeruena, 1 - Ibaeta Nervión, 3 - 8º - 43pl. 15-7
Tfno.: 94 423 33 28 Tfno.: 94 423 42 42
Faxa: 94 453 50 Faxa: 94 423 81 70
48150 SAINTEKA - Huelvas 48101 IRI HAJI



LIBRERIA SONDIKAZ
LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburukak,
paperyintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
49150 SONDIKAZ (Bizkaia)

GOITIOLTZAKO ESPALOA: ORDUA IZAN DA!!!

Ondo etorri, Goitioltzako espaloi hori! Aspaldiko auzokideen eskaria (eta beharri-zana) izan da, eta oraindino guztiz amaitu barik egon arren, aurpegia irribarretsu paretan jaku hortik pasetan garan bako-txean eta lanen martxa ona ikusten dogu-nean.

Kale argiekaz batera, geure joan-eto-rrietarako auzoko (zati baten) oinbide seguru eta beste herritar batzuen paseale-ku eder bihurtuko da laster, seguru nago.

Albiste pozgarri honegaz estreinau gura geunke ataltxu hau. Eta, lanak guztiz amaitu ondoren, egingo dogu trankiltxo-ago argazki zehatzagoa, Aikorren hurrengo zenbakirako behar bada.

Baina, obserbadore zorrotzak, kritika lagungarriaren bidetik, ondo egiten diren gauzak txalotu ez ezik txarto egiten direnak (edo egiten ez direnak) salatu be egin behar daz; eta azken honeek, askotan eta zoliago esan behar izaten dira inork entzuteko, ze, diruak aginduten dauan leku gehienetan pasetan dan moduan, bazterretara beti erdi ingurura baino beranduago edo/eta eskasago helduten dira gauzak, eskubide berberak euki arren eta zergak bardin-bardin ordaindu arren.

Laster izango dozue gure barri. Ia ba Txorierriko bazterrak be danon artean bizi-garriago egiten doguzan. Gero arte.

Testua: Basabildotza



URIOLAK LARRABETZUN

Testua eta argazkia: Patxi Gaztelumendi



Gure herrian, besteen antzera udan eguraldi onik ez du egin. Ez hori bakarrik, abuztuaren 26an (astelehenez) uriola handiak izan ziren. Bizkaiko beste herri batzuen antzera -Zorrontza, Mungia, Bakio, Bermeo- Larrabetzun be, goizeko 9ak aldera errekek gainezka egin eta zerra ingurua hartu zuen urak.

Zubitalde auzoko etxe batzuk izan ziren kaltetuenak. Zerran bertan, makina batzuk izorratu ziren, eta hurrengo egunetan kon-pondu behar izan zituzten. Zubitalden baserri batzuetan nahikoa ur sartu zen barrura, eta auzo guztia basagaz gainezka geratu zen arrasti partean. Auzolanen garbitu ziren lonja, etxe, txoko eta bazter guztiak.

Zerurena Jatetxea

Errementeri Kalea, 22
Tfno.: 94 453 57 54
Fax: 94 453 58 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

ZAMUDIO BERRIKO LURLANGILEEN ETXEA
COMPRATIVA AGRARIA Y GANADERA DE ZAMUDIO BERRIO
HEMOKHITAKEN ZERBITZUA
Santi Mami Auzoa, 1
Tlf: 94 454 18 00
Fax: 94 454 17 11
48150 ZAMUDIO (Bizkaia)

SANTI MAMI
AGRIKULTURA
Tlf: 94 454 18 00
Fax: 94 454 17 11

ATARRABI

Errementeri, 11 | 48150 Sondika
Tlfno.: 944 521 928

GARRAIOLARIA

Miguel Angel Lekue:

Andra M^o, 151
LARRABETZU
Tlfno.: 94 455 80 20

LEKE'S **JATETXEA**
S.L.R.

LEKERIKA BILBAO

Santamari, 1 | 48170 ZAMUDIO
Telefono: 944 543 894 | Bizkaia

Txorierriko Korridorea: TRAFIKO ARAZOARI KO

Autobia berriari esker, eskualdeko hiriguneek paira



Lotura A8 autobidearekin
 BI-637 eta N-634 errepideak zabaltzea Erletxe lotunean, trafikoa arintzeko



Honen bidez, Txorierriko pasabidea Larrabetzurekin, Busturialdearekin eta N-634 errepidearekin lotzen da.



Honen bidez, Txorierriko pasabidea Lezama eta Larrabetzu udalerriekin eta Busturialdearekin lotzen da.

LK

LAPIKO/s.l.
 Partzuergoaren enpresa - Partzuergoaren enpresa
 ILLAIAIN

Garaibito, 07
 41110 Zamudio - BIZKAIA

091111-1111
 091111-1111

Farmacia

Jose Maria Quijano

LEHENDAKARI LEIZAOLA, 1 - TELEFONO: 94 492 01 99
 48170 ZAMUDIO - BIZKAIA

Sancti Spiritus

Colonia
 Miraflores
 Diócesis
 Propiedad de la Comunidad
 Misiones
 Propiedad de la Comunidad
 Diócesis
 Misiones

ONPONBIDE AZKARRA

eratzen duten trafikoa %70 gutxituko dela uste da.



DERIO-LARRABETZU ZATIA
 2 DIBIDZUDI
 6 ERREKOTO PASABIDE
 1 GOIKO PASABIDE
 3 ZUBI
 1 KANAL
 1 KANAL ETA KASUAN KASUKO
 HORMA ETA DIBIDZUEN DARRAK

Txorierriko autobiak helburu nagusi bi ditu: alde batetik, A-8 autobideko hegoaldeko bide-antolaketa izeneko zatiari konponbidea ematea, eta, bestetik, aireportuko terminal berriak sarbide egokiagoa edukitzea. Horrela, eskualdeko herrietatik pasatzen den trafikoa %70 murriztuko dela uste da. Horren ondorioz, merkantzia arriskutsu gutxiago igaroko da eta istripuen kopuruak ere behera egingo du.

Hasiera batean proiektu honegatik iskanbilak eta aurkako jarrerak izan ziren eta batzuk kaltetuta gertatu ziren, baina azkenean iaz hasi ziren autobia eraikitzeo lanak (Txorierriko autobiarri falta zaion zatiaz ari gara, jakina, Asua eta Derio arteko zatia aspaldi amaitu baitzen) eta bi tramutan banatu ziren. Lehenengoa, 8 kilometrokoa, Deriotik Larrabetzura doa, beti ere Derio, Zamudio eta Lezama erditik zeharkatzen dituen bidea albora utzita. Esan beharra dago tramu honetako lanak atzeratu egin direla eta, ondorioz, Zamudiok eta Lezamak luzaro jarraituko dutela trafiko arazoa pairatzen. Izan ere, obrek 2003ko uztailean amaituta egon behar bazuten ere, epea luzatu egin da. Enpresa eraikitzaileen txosten batean azaltzen denez, atzerapenaren arrazoiak harrobieko langileen greba eta linea elektrikoaren aldaketa dira.

Bigarren zatia Larrabetzuko saihesbidean hasi eta Erletxeko lotunean amaitzen da. Bertan A-8 autobidearekin lotzen da Donostiarako norabidean. Tramu honek 1,5 km du. Kasu honetan, obrak nahiko aurreratuta daude eta uste da martxorako bertatik pasatu ahal izango direla gidariak.

9 kilometroko pasabidea

Alternatiba azkarra izateaz gain, pasabidea hau ardatz transeuropar berria da eta komunikazioa errazten du Frantziaren eta



ZAMUDIOKO LOTUNEA

Honen bidez, Txorierriko pasabidea N-637 errepidearekin lotzen da eta, hartara, inguruko industrien errepidera sartzeko aukera dute.



DERIOKO LOTUNEA

Lotura Derio-Enekuri zatiarekin

Derio udalerria egungo Enekuri-Derio zatiarekin lotzen du, eta era beran, Txorierriko pasabidearen era Bilbo-Mungia BI-631 errepidearen arteko komunikazioak errazten dira

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
 Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

KRIKETA
 LARRABETZU
 Tel. 94 455 7135

COMERCIAL - PISCINA - JARDINERIA - MANTENIMIENTO
 en el Servicio del Cliente

LIBURUEN DENDA / PAPELAREN DENDA

ZAMUDIO

Carretera de Lezama, 5
 Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Kantauri Itsasoko eskualdeen artean, lotuta baitago martxan dagoen Txorierriko autobioiko lehenengo fasearekin eta Arrontegiko zubiarekin, Bilboko Itsasertzeko ibarrekin eta A-8 autobidearekin.

Orokorrean, Txorierriko korridorea sarrerako kontrolak dituen autobioitzat jotzen da. Luzeera 9,5 km-koa da eta Asua ibaiaren ezker ibarreko hegaletik igarotzen da.

Autobioiak 3,5 metroko galtzada bi ditu noranzko bakoitzean, bizpahiru erreikoak. Bazterbideak zabalak dira eta galtzada biak bereizten dituen tarteak 2 metrotik 4 bitartekoa da. Era berean, lotuneetako bide guztiak argiztatu egingo dira gauetz; lau tunel faltsuetan, berriz, gau eta egun egongo da argia.

Honetaz gain, lurrazpiko kanalak jarriko dituzte zati osoan. Kanal

horiei esker zuntz optikoaren bidezko komunikazio linea instalatuko da.

Proiektu hau jorrazteko, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Herrilan Sailak ia 100 milioi euro (16.280 milioi pezeta) inbertitu ditu.

Testua: Itxaso Marina

“HEMEN EZ DAGO EZER EGITERIK”

Egunero, Txorierriko errepide nagusian hainbat auto eta kamioi ikus ditzakegu eta, hauekin batera, inoiz amaitzen ez diren ilarak. Horrela, ez da harriztekoa gidariek nerbioak dantzari izatea. Guztiak doaz arretaz, aurrean duten autoari begirik kendu barik. Hala ere, askotan, pazientzia galdu eta istripuak gertatzen dira.

“Hemen ez dago ezer egiterik”, komentatzen du Jose Antoniok, Derioko enpresa batean lan egiten duen mutil gazte batek. “Batez ere puntako orduetan. Garaiz heldu nahi baduzu, etxetik hiru ordu laurden lehenago irten behar duzu lanera”, kexatzen da, “Gainera, errepidea nahiko txarra da eta istripu asko izaten dira”. Haren esanetan, Derioko sarrera hartzen duten autoak nahiko azkar etortzen dira eta gehienetan bidea emateko orduan liskarrak sortzen dira.

Honetaz gain, mutil honek gogorazten digun legez, kontuan hartu behar dira trafikoak sortzen dituen zarata arazoak eta jasaten dugun airearen poluzioa.



Egundo ilara-autoak sortzen dira egunero Txorierriko errepide nagusian



GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-FRAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

**LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK**

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

Bar - Restaurante

Balgerri



1. g. gure menua
Menu berezia
Prezio txikiak

Poll. Industrial Terresorgoiti, Parcela 8 - Nave 3 - 48170 (AMARU)
Tel. 944 323 853 • Fax 944 323 176

ABOLKULARTZA
BIZKAIA
LEZAMA
MONTABILIA TERZA



ABOLKULARTZA
BIZKAIA
LEZAMA

ZER DERITSEZU TXORRIERRIKO AUTOBIAKO LANEI?



Nora

Alde batetik, autobiak trafikoa asko gutxituko du, baina, beste alde batetik, ingurugiroari kalte egingo dio.



Roberto Fernandez

Ez ditut ondo ezagutzen, baina uste izatekoa da errepideak hemen bizi garenoi lasaitasun handia ekarriko digula, trafikoa gutxitu egingo da eta.



Gabriel

Normalean Artxandatik etortzen naiz eta, ikusi dudanaren arabera, oso aurreratuta daude. Nire ustez, autobia berria oso garrantzitsua izango da. Orain Zamudion auto ilara handiak daude eta, hari esker, egoera hobetu egingo da.



Jon Aurrekoetxea "Gulu"

Ez dut beharrik ikusten. Autobide eta auto gehiegi daude, baina arazoa da bide sareak txarto eginda daudela oraindik. Orduan, zenbat eta auto gehiago egon, bide gehiago eraikitzen dira, eta azkenean ez da geratuko lurrik ez lekurik. Beste aldetik, ingurugiroa ez da errespetatzen. Adibide garbiena Larrabetzuko Aurkulu auzoa da.



Koldo Peñafiel

Hasieratik txarto hasi ziren lanekin, izan ere, aurrekontu osoa ez zeukateenez, autobia erdia egin zuten. Horrek ekarri zuen Lezamak, Zamudiok eta holako herriek egundoko trafikoa pairatzea. Dena dela, derrigorrean bukatu behar dute, ez dakit zelan egingo duten... Ziur asko herritar batzuentzat kaltegarria izango da, baina lanak amaitu egin behar dira, Txorierrin dagoen trafikoa jasanezina da eta.



Juantxo

Nire ustez, lanek sortzen duten ingurune-inpaktua harritzekoa da. Auto ilarak beste era batean konpon daitezke. Adibidez, saihesbideak eta aparkalekuak egin daitezke edo garraio publikoa ordu erditik ordu erdirakoa izan beharrean sarriago jarri, autobus lanzaderak...

Hiru hilabeteko katakume bat oparitzen dugu. Tigre itxurakoa, maitagarria. Tel.: 94 455 56 05.

Zaldiz ibilteko "montura" amerikarra erosiko neuke. Tel.: 94 452 10 77. Deitu 21:00etatik aurrera.

Atal hau Txorierriko merkatu txikia izango da. Ezer badaukazu saltzeko, erosteko, edo beste edozertarako, deitu eizu hona eta orri honetan argitaratuko dogu.

*Gure helbide elektronikoa
aikortxori@yahoo.es da
(telefonoa 94 452 34 47 da).*

laukitxo bat 3 euro.

10 urtez gogoratuz **SABIN GAZTAÑAGA.** **ARRASTOA UTZI ZUEN LANGILEA**



Testua eta argazkiak: Jose Angel Mentxaka eta Belen Gana

Irailean, azken 10 urteetan legez, lagun talde bat bildu da Sondikako kanposantuan Sabin Gaztañaga zenari omenaldia egiteko. Bai ezagutu zutenek gogoratzeko eta baita belaunaldi barriei ezagutarazteko interesgarria iruditu zaigu orrialde hauetara bere figura ekartzea.



Baiona Korrika-7 amaierako mezua irakurtzen. Ikusmena ia galduta juxtu lortu zuen.

Gazte-gazterik militantzia politiko eta sindikalean murgilduta

1954. urtean jaio zen Goierriin, Erandio Goikoan. Txikitatik dantza taldean ibilitakoa, gazte-gazterik pertsona konprometua izan zen.

Hasiera batean "Herri Gaztedi" taldean partaide. 15 urterekin lanean hasi eta "Frente Obrero"n militatu zuen, ondorioz, 17 urte zituelarik, tortura ezagutu eta kartzelaratu izan zen 1974an.

Kartzelatik irtenda, LAB sindikatuaren sorreran parte hartu zuen eta baita EIA (Euskal Iraultzarako Alderdia) alderdi politikoarenean ere. Azken alderdi honek zerman bidea ikusita utzi egin zuen.

Esan daiteke Sabin izan dela frankis- moaren azken urteetako eta trantsizio garaiko politikan zein sindikalgintzan erreferente garrantzitsu bat Txorierriin.

Txepetxa AEK euskaltegiko lehen arduraduna.

Gaixotasun latza pasa ostean, buruko minbiziaz ebaketa egin zioten, kazetaritza amaitu eta euskal kulturaren murgildu zen.

Euskarazko irakaslea izateko prestatu ondoren, AEKn sartu zen 1985ean. Urte horretan Txorierriko Korrika-4 batzordeak euskaltegi berria jarri nahi zuen martxan Derion. Eraketa ardurarako Sabin izan zen aukeratua. 1985eko irailaren 20an inau- gurutzen da San Migel auzoko pisu baten

 **GUEDAN**
servicios deportivos, s.a.
ZAMUDIÓKO UDAL KIROLDEGIA

Herri Kiroldegia S. A. Herri Kiroldegia, C/ Nekazar, 1. 48011 Herri (Bizkaia)
Telefonoa 94 452 82 10 - Faxa 94 452 87 12
Zamudioko Polizia: Telefonoa 94 452 21 20 - Faxa 94 452 30 74

 **luz zamudio**
ARCI APARATUAK

Herri Kiroldegia S. A. Herri Kiroldegia, C/ Nekazar, 1. 48011 Herri (Bizkaia)
Telefonoa 94 452 21 20 - Faxa 94 452 30 74

CARROCERIAS TXORIERRI 

José Antonio Sanz

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Vial Sur 7-15, Nave RS 1
Bilbao-Luz, 94 452 29 03

ARCI/TAMBURO (Bizkaia)



Josemiel Barandiaranegaz Korrika-7 an egin zitzaion omenaldian



Txepetxa euskaltegiko konpartsan Derioko jaietan

***“militante diziplinatua,
dinamikoa, zintzoa,
oso aktiboa eta batez
ere tinko bere
printzipioetan”***

birsortzen zela nabaritu zuen, bat-batean oreka eta ikusmena ia galduta, juxtu-juxtu lortu zuen amaierako mezua mikrofonoetatik irakurtzea. Hilabete gutxira zendu zen.

Txepetxa euskaltegia. Euskaltegiaren izena ere Sabinen proposamena izan zen, txorizalea izanik bere esanetan euskaltegia txepetx edo epetx txoria legez izan beharko zuen, txikia, baina bertan ondo sustraitua.

Laster lokal egokiago batzuk behar ziren eta hainbat lanen ondoren bere ardurapean oraingo lekura eroan zen euskaltegia. Bertatik Txorierrin eta batez ere Derion kultur eragile nekagaitza bihurtu zen.

***“bere esanetan
euskaltegia txepetx edo
epetx txoria legez izan
beharko zuen, txikia,
baina bertan ondo
sustraitua”***

AEKn Euskal Herri mailako arduran ibilitakoa

Sabinen ezaugarri nagusietarikoa zen, zerbaiten sartuz gero, buru-belarri inplikatzeko zela. Euskararen munduan sartuta, laster ardura gehiago hartzen joan zen AEKn.

Euskal Herriko antolaketan parte hartu zuen Bizkaiko arduraduna legez urte batzuetan. Orduan AEK eta HABEren arteko gatazka pil-pilean zegoen eta berea zen ezaguna egingo zen esaldia: “Ez dago AEK desegingo duen gobernurik, ezta dekreturik ere. AEK herriarengandik sortu eta HERRIAK mantendutako mugimendua baita”.

Korrika-7ko antolaketan ibilitakoa eta bere kideek kontatzen dutenez Baionan azken kilometroa korritzera zihola, azken urteetan “lagun” izandako buruko minbizia

Ezagutu zutenen iritzian “militante sutsua, euskaltzalea, bidaiari nekazalea eta parrandazalea”

Sabin ezagutu zutenen iritzian: “militante diziplinatua, dinamikoa, zintzoa, oso aktiboa eta batez ere tinko bere printzipioetan. Langile eta abertzaleen defendatzaile sutsua” zen, “analisirako gaitasun handikoa eta hausnarketa orduan objektiboa”.

Nortasunaren aldetik, bat aukeratzeko tan bere “karisma” aipatzen dute, “baina ondo erabilitako karisma, lagunak egiteko eta proiektu berriak eraikitzeko”. Euskal kulturaren inguruan ezagutu zutenentzat “Euskararen berreskurapena zen bere grina nagusietarikoa eta horretan ere buru-belarri ibili zen, nekazalea eta animosoa beti”.

Beste alde batetik, bere lagunek diotenez “parrandazale amorratua zen, bidaiari nekazalea, mundutik zehar ibilia”.

hotela
jate txeka
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

ERREKA FONDO ETXEA

Uzinako menua, aurrerako menu berria, lotu, egokien berrikalk, josturak, ezberdin berrikalk

Arraga, 80
Xanadua 48170 (BIZKAIA)
Tlfno.: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

HOTELA
JATE TXEKA
ARETXARTE + ERREKA

Ulinar Gurgosentxako

Arraga sasu, 62
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 13 16
E-mail: hotel_aretxarte@planet.ea

GAMINIZ
RESTAURANTE

AITOR ELIZEGI

Zamudio Parke Teknologiko Tlf: 94 431 70 25
Hozema 71/ E-mail: gaminiz@euskaltel.net
48170 ZAMUDIO BIZKAIA www.gaminiz.com

LAINO GUZTIEN GAINETIK.....: **PIC LENIN 2002**



Testua: Fernando Larrondo

Aurtongo udan euki dogun denpora goibeletik alde egin gurean edo, Txorierriko lagun bi eta Mungiako beste bat (Gotzon Zubiaur sondikatarra, Jon Arostegi zamudioztarra eta Javier Gorospe mungiarra) Txinako mendebaldeagaz muga egiten dauan Kirgizstanerantza abiatu ziran, Sobietar Batasuneko Errepublika-ohi honetan kokatua baitago, hain zuzen be, Pic Lenin mendia. 7134 m altuera daukan mendi honen gailurrera helduteko ametsaz urten ziran Euskal Herritik abuztuaren 4an. Itzulera, gailurra poltsikoan eukiela, abuztuaren 31n izan zan.

Hiruko hau mendirik mendi sarritan ibilia da. Pirinio eta Alpeetako mendi gehien gailurrak ezagunak dabez, eta euretako bat Errusiako Elbrus mendian ibilia be bada. Euren zaletasun honetan aurrerapauso on bat emon gurean edo, hasikerako asmoa Andeetako Aconcaguara joatea bazan be, bertora joateko urtarorik aproposena ez zanez (urtarrilean hobe) joan dan urteko gabonetan Pic Lenin mendira joatea erabagi eben.

Orain dala bost urte bertora joandako lagun batek emon eutsiezan aholkuekaz baeukien mendi honen ganeko hainbat informazino. Martxotik aurrera bidaiaren prestaketan bete-beteian sartu ziran.

Bishkek izeneko uriburua dauan herrialde honek ez dauka enbaxada edota kontsuladorik Espainiako Estatuan, eta orduan, gure mendizaleok Kazajistanek Madrilen dauan enbaxadara jo eben bisak

lortzeko asmoz. Honetaz ganera, Errusiako enbaxadara ere joan ziran bisen tramitazinoa egiteko, Moskutik igaro behar baitziran.

Tramitazino guztia kostata atara eben, azken momentura arte urteteko baimena jasoko eben ez ekiela.

Bilbotik Kirgizstanerako hegazkinen txartelak euren aldetik prestatu eta antola-

cianoplan s.a.
Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio

Tfnoak 944 70 97 91

944 20 97 87

<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

tu ebezan, eta herrialde barruko garraio eta ostatuak agentzia baten bitartez egin eben.

Kirgizstanerako bidean Moskun gau bat egin behar izan eben eta handik Bishkek uriburura. 600000 biztanle daukazan uri honetatik Osh herrira heldu ziran abuztuaren 7an. Berton alde zaurerik berba egindako pertsona baten etxean emon eben lehenengo gaua. Han egondako orduetan leku hartako bizi maila eskasa ikusteko aukerea euki eben txirotasuna eta mota guztietako gabeziak begi bistakoak ziralarik.

“Aklimatazioa lortzeko bi egun emon eben 3600 metrotara egoan kanpamentu basean”

Abuztuaren 8an Oshetik kanpamentu basera mugidu ziran. Kamioi baten 10 ordu emon ostean kanpamentu basera heldu ziran. Han egoan giroa itzela zan, beste hainbat espedizino egoalarik. Agentziaren bitartez antolatuta eukien hango denda eta janaria, azken hau bertoko biztanle nomaden jurta izeneko etxee-

tan prestatua. Gero, bazkaltzeko orduan, karpa baten batzen ziran mendizale guztiak.

Aklimatazioa lortzeko bi egun emon eben 3600 metrotara egoan kanpamentu base honetan, baita gailurrerantza abiatzeko azken gauzak prestetan be. Abuztuaren 10ean ekin eutsien 4300 metrotara egoan lehen kanpamenturako bideari. 8 ordu behar izan eben ibilbide hau egiteko. Berton hiru gau emon ostean, 5300 metrotara egoan bigarren kanpamenturantz abiatu ziran. Euren dinoenez hau izan zan igoera osoko zatirik gaxena, arrakala eta zulo asko egoalako.

Hara heldu ondoren, eta sherparen laguntzarik ez eukienez, barrero jatsi behar izan ziran kanpamentu basean itzizako materialaren bila.

Barriro gorantza, eta 6100 metrotara egoan hirugarren kanpamentuan gau bi emon ostean, abuztuaren 21ean goizeko sei eta erdietan gailurrerako azken txanpari ekin eutsien. Haizete eta hotz itzelak lagun ebezala, 6-7 ordu emon eben gailurrera helduteko. Bidean, sakabanatu egin ziran, eta Gorospe izan zan lehenengoa tontorrean. Handik 15-20 minututara Zubiaur eta ordu eta erdira Arostegi.

“Gorospek arazoren bat euki eban, eta erreskate-talde baten laguntza behar izan eben”

Goien, lainoa sartu baino lehenago, tradiziozko argazkiak egin eta ikurrinak ipini ebezan, Zamudiokoa, Euskadikoa eta hiruko honen abentura diruz lagundu eban Saint Cobain enpresakoa.

Berantzako bidean, izotzeko zoruaren eraginez, Gorospek arazoren bat euki eban, eta ondorioz, erreskate-talde baten laguntza behar izan eben kanpamentu basera jasteko, tartean zaldiak be lagun eukiezala. Abuztuaren 23an, guztiak egozan kanpamentu basean helburua lortuta. Egun biko atseden hartu ostean, bueltarako bideari ekin eutsien.

Kirgizstandik urteteko, bisa zala eta, Poliziagaz arazoren bat euki eben. Holangoetan derrigorrezkoa izaten dan “negoziazioa” bide onetik eroan eta gero, Moskurantzako hegaldia hartu eben. Eta handik, Euskal Herrira. Abuztuaren 31n etxean ziran.

Hiruko mendizale honek Aikor aldizkariagaz izandako berbaldian azpimarratu gura izan dabe Saint Cobain enpresak emondako dirulaguntza, baita eurak federatuta dagozan Ganguren Mendi Taldetik jasotakoa be.

Datorren urteari begira gauzak apur bat lasaigo hartzeko asmoa daukie, eta Alpeetan edota Pirinioetan zehar ibilaldiren bat egingo dabe. Hori bai, 2004 urteari begira hasi dira dagoeneko Andeatoko Mendikateagaz zerikusia daukan proiektuaren ganean pentsetan.



<p>Kudeaketarako Sozietatea Birziklitzeko Zentro Aurreratua</p>  <p>Torrelarragolti Ind. z/g 48170 Zamudio Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619</p>	<p>Tratamendu larroak</p> <ul style="list-style-type: none"> -Erabilitako olioak -Agortutako taladrinak -Disolbatzalleak -Automozio <p>hondakinen kudeaketa osoa</p>
---	--



Ortu-ondo, s.a.
 Ugaldeguren II Ind. 743 - Tfn.: 944 521 590 - Faxa: 944 522 600
48170 ZAMUDIO



CLÍNICA DENTAL
ZAINDUZ
HORUZ KEENIBA
Jesus Enrique Lopez Hidalgo
 Odontologo
Dr. D. Manuel Serra Cabrera
 Ortodontizla

ALDIZKARIAJASO
GURA DUENAK
DEITU BAINO EZ
DU EGIN BEHAR
TLFNOA: 94 452 34 47
EDO E-MAILEZ ESKATU
aikortxori@yahoo.es

MENDIKO ALTXORRAREN BILA

Uda bukatzean dago eta baso gehienetan perretxikoen presentzia handituz doa. Hala ere, datorren urtaroon fruitu hauek biltzeko momentu egokiagoa izango dugu.

Testua: Itxaso Marina

Udazkenarekin batera, gure mendiak perretxikoen bila joaten den jende gainezka izaten dira. Izan ere, zaletasun honek ematen dituen pozaldiak ez dira makalak.

Lehenago eta behin, fruitu honen bilketak naturaz gozaten usteaz gain, aukera bikainak eskaintzen dizkigu sukaldaritzarako. Nork ez du gustuko, ba, saskia bete eta gero, familiarekin bazkari edo afari ederra prestatzea?

Beste aldetik, ezin ditugu ahaztu mikologiarako zaletasuna dela eta, goiz-goiz altxatzen direnak onddo bikain edo "amanita"ren habia ederren topo egiteko asmoz.

Dena den, perretxikoetan ibiltzeko udazkena garai egoki bada ere, udaberrian, eta neurri txikiagoan udan eta neguan, ere aurki ditzakegu perretxikoak ematen dituzten onddoak. Normalean, hau gertatzen da hezetetasunaren eraginagatik. Ernetzeko, espora batek hezetetasun handia behar du (%70ekoa baino handiagoa) eta udaberri eta udazken eurite ondoren lortzen da. Honetaz gainera, tenperatura epela ere behar izaten da, 10 eta 25 gradu bitartekoa.

Non aurkitu eta nola identifikatu

Basoetan espezierik gehien aurki dezakegu lurtean pilatzen den materia organikoaren aberastasuna dela eta. Horrela, erreka ertzetik lertxundi, makaldi eta zumardiez gain, arte eta gaztainondoak dauzkaten basoetan egoten da perretxikorik gehien, Amanita eta Boletus ugari. Era berean, pagadi eta hariztiak, besteak beste, oso emankorrak dira, bereziki Mycena eta Marasmo espeziei dagokionez.



Orrementi-onio

Saskia bete ondoren, bai mikologian zaletuak bai hasi berriak gehien kezkatzen duten gaia fruitu hauen arriskugarritasun maila da. Egia esan, oraindik ez dago jangarriak ala pozoitsuak diren jakiteko arau zehatzik. Ondorioz, haien ezaugarri botanikoen bidez ezagutzea da irtenbide bakarra.

Hala ere, nahiz eta pozoitsu ez izan, perretxiko asko toxikoak dira. Orduan, jakiteko zein hartu eta zein ez, zientzia-aholkaritzan apur bat eta mikologiaz dakien norbaiten laguntza erabili behar dugu. Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu hurrengo urrezko araua: perretxiko mota baten aurrean zalantzarik txikiena izanez gero, ez kontsumitzea da egokiena.

Bilketari buruzko aholku batzuk

Hasteko, gai honetan ondo jantzita egotea komeni da. Orduan, ahalik eta liburu gehien irakurri beharko dugu azken orduko ezustekak ez izateko. Halaber, bilketarako ekipamendua zaindu behar dugu: konpartimentuak eginda dituzten kartoizko kaxak, poltsak edo paperezko kartazalak, labanaxo bat...

Perretxikoa hartzeko orduko, segurtasun neurri gisa, osorik helduko dugu, lur apur batekin, lurpean zatirik gera ez dadin. Horrela, gidaliburukoekin konparatu ahal izango dugu. Bidean honda ez daitezten, hosto, goroldio edo belarrez beteta paperezko poltsetan, bakoitza bere izenarekin, sartuko ditugu perretxikoak. Etxea ailegatzearan, jatekoak eta ikertzekoak bereiztea izango da lehen lana.

**LEJARRENE
JATETXEA**

GARAIOLTZA, 102 - TEL.: 455 65 46
LEZAMA (BIZKAIA)

KIMA

Landarak
LANDARE APAINGARRIA

Goiztoa 58 - Tel. 94 05 51 00 - Fax 94 05 61 77
48106 LEZAMA (BIZKAIA)

S.A.T. LEGY

LEZAMA
Goiztoa Auzoa, 36
48106 LEZAMA - Bizkaia
Tel.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17

KONTSOLAK

Testua: Alberto Legarreta

Ordenagailuek eta Internetek ez eze, bideo-jokoak eta kotsolak be arrakasta handia lortu dabe munduan. Ganera, diru asko mugitzen dabe. Herrialde batzuetan normala izaten da etxe bakoitzean kotsola bat edo gehiago egotea. Horretan japoniarrek dira zaletasunik handiena daukenak. Euskal Herrian, barriz, ez dago oso zabaldurik, baina gero eta gehiago dira erabiltzen dabena.

Zergaitik kotsola?

Jende askok ordenagailua olgetako erosi eta erabiltzen dau. Zer da hobea, kotsola ala ordenagailua? Gehien eritxiz, olgetako bada, hobeto da kotsola eroste. Kotsolai jagokenez, badira kontuan hartu behar diran gauza batzuk:

-Kotsola, izatez, ordenagailu txikiak dira, baina espezializatuta dagoz bideojokoak erabiltzeko.

-Merkeago urteten dabe. Kotsolak egiten dituen artean, konpetentzia gogorra izaten da eta prezioak merkeago ipinten ditue alkarragaz lehiazeko.

-Jokoak hobeto ikusten dira pantailan,

telebistara konektatzen diralako; ganera, DVDn ikusi lei eta musikako ekipora be konektatu lei.

- Badira joko batzuk, bakar-bakarrik kotsoletan erabili leitezak.

- Ordenagailuetan jokoak instalatu egin behar izaten dira eta batzuetan arazoak emoten ditue.

- Kotsolek jokalarik asko onartzen ditue.



Bideo-jokoak

Ezaugarri fisikoak albora itxita, kotsola batek arrakasta eduki daian, gauzarik garrantzitsuenak bideojokoak izaten dira. Jenderik gehienak halako edo holako kotsola erosten dau, gustetan jakozan bideojokoetan olgau ahal izateko. Esate baterako, Pokemon bideo-jokoa Nintendo64 kotsolan baino ez zan ibiltzen eta horrexegaitik saldu zan hainbeste.

Tomb Raider (Lara Kroft), Super Mario, Dragon Ball, Street fightert, Mortal Kombat dira arrakasta handia eduki dabena beste bideo-joko batzuk.

Bideo-joko batzuk eksklusiboak izaten dira kotsola batentzat, egileak kontratu bat egiten dabelako.

Helbide interesgarriak:

<http://www.nintendo.com>

<http://www.elcorreodigital.com/evasion/ciber.html>

http://www.es.ciao.com/ranking/La_Mejor_Consola_Actual.html

KONTSOLA MOTAK

Kotsola berrienak 128 bit-ekoak dira:

Playstation 2.(PS2) PS1-eko jokoak eta bideo DVD irakurri leitezak. Seguruenik, une honetan berau izango da gehien saltzen dana. Bideojoko barietate ona dauka. SONYk egiten dau kotsola hau. Prezioa 249 _koa da. Argibide gehiago http://es.playstation.com/home/home01_generic.jhtml helbidean dagoz.

Gamecube. Merkeena da (199 _). Jokoak DVD txiki batean etorten dira.

Makina indartsuak. Jendeak oso ondo egiten dau kotsola honez. NINTENDOK egiten dau kotsola hau. (Argibideak: <http://www.gamecube.com>).

Xbox. Merketu egin da, lehen garestia zan eta. Indartsuena da, baina ez da asko saldu, jokoak ez diralako onak. Ez dauka joko eksklusibo askorik. Microsoftek egiten dau.

Onera PS2 izango da, gero Gamecube, eta azkenean Xbox.

Playstation 1 (SONY) eta Nintendo 64 (Nintendo) be merkeago salduten dira. Txikieneztat izaten dira egokiak.

DREAMCAST (SEGA) desagertu egin da eta kotsola honentzat ez da joko berririk egiten.



SUINOR COMPUTER S.L.
Tomelarragoti, Industrialdea-3, blokea-3, naboa-2AMUDIO (Bizkaia)

BARAKALDO INFORMATIKA
Miranda Etorbidea 3
48902 BARAKALDO-BIZKAIA
Telefono/Faxa.: 94 4781643

LEIOA INFORMATIKA
Iparragim Etorbidea 58
48940 LEIOA-BIZKAIA
Telefono.: 94 4804638
Faxa.: 94 4807145

e-mail: rocco@arrakis.es

HACKERS
CIBER

- ON LINE JOKUAK
- CHAT-AR
- WEB ORRIALDEAK

MIKEL ZABATE 3 ICORREDO AURREAN SONDIKA
TELEFONO: 94 453 75 78

VIDEO-CLUB EL TRASGU

• DVD
• VHS
• PLAY STATION
JOKOAK
• OPARI SALMENTAR

Iturrigana, 1 • Tel.: 944 710 156
48150 SONDIKA

ANDER GARITANO:

**“Futbola
uzteko
momentua
ailegatu
zait”**

Testua: Ixaso Marina

Futbolari hau Derion jaio zen orain dela 33 urte. Familiak kirol honi dion zaletasunak bultzatuta, gazte-gazterik hasi zen entrenatzen. Horrela, 1986an Bilbao B taldean sartu zen eta 2 urte geroago debuta egin zuen Athleticekin. Pasa den futbol-denboraldian erretiratzea erabaki zuen. Horri eta beste gauza batzuei buruz hitz egin dugu berarekin.

Nondik datorkizu futbolerako zaletasuna?

Batez ere, familiarengandik. Aita futbol zale amorratua zen eta anaiek futboleko jokatzen zuten. Txikitan, partiduak ikustera joaten nintzen eta orduan sartu zitzaidan grina.

1988an debuta egin zenuen lehenengo mailan Athleticekin. Zelan gogoritzen duzu egun hori?

Real Madriden aurka jokatu genuen. Nahiz eta 5-0 galdu, oso oroitzapen polita daukat, niretzat ustekabe handia izan zen

“Athletic uztea oso gogorra izan zen, niretzat talde hau dena zen eta”



**LARRABETZUKO
ESTANKOA**

Tabakoa, prentsa, loteriak, kiniola...

Andra Mari kalea, 1. LARRABETZU
Tfnoa: 944 558 110

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Taldea Plaz, 1 - 1º A
ULKIU

Teléfono: 944 545 705



Albaitaritze

HENAR ORTUONDO
ALQUATARIA

Miliet Plaza Plaz
Telefono: 91 571 26 71
ANTAN JENKWA (Madrak)

DERIO

LARRABETZUKO 24 orduko
Telefono: 91 571 26 71 • Alkatari: M. A.



Ander Garitano Euskal Selekzioarekin

“Garitano peñan lagun minak ditut. Athleticetik alde egin nuenean, laguntza handia eman zidaten”

eta. Azken momentuan deitu zidaten eta egundoko ilusioa hartu nuen. Pentsa... Athleticekin jokatuko nuen!!!

8 urte eman zenituen Athleticen, zein da zure gomutarik maiteena?

Debutaz gainera, atseginez gogoratzen ditut San Mamesen urtero egiten genituen taldearen aurkezpenak. Egia esan, gauza asko etortzen zaizkit burura: hainbat entrenatzaile, Europako Kopa jokatutako urteak... Azken batean, esan dezaket benetako poztasuna ematen zidana taldearekin jokatzea zela.

Zer dela eta alde egin zenuen Athleticetik?

Ba... ez dakit. Gauzak ez ziren modu egokian azaldu. Etapa hori amaituta zegoela pentsatu nahi dut. Orduan 27 urte nituen eta oso gogorra egin zitzaidan, niretzat Athletic dena zen eta. Ez dakit burutik pasatu zitzaidan futbola uzteko ideia... Baina gero Zaragozako proposamena ailegatu zen eta onartu egin nuen.

“Futboleant jokatzeagatik gauza asko baztertuta utzi ditut eta berreskuratu nahi nituzke”

Zaragozan 6 urte egonda, zelan ikusi duzu zeure burua taldearen barruan?

Oso ondo. Orokorrean, oso harreman ona izan dut jendearekin. Maitasun handia sentitu nuen eta ahalik eta ondoen egiten saiatu nintzen. Pena izan zen bigarren mailara jaitea... Beno, Errege Kopa ere irabazi genuen eta hori hor dago.

Hainbeste partidu jokatu eta gero, 52 gol sartuta, zein izan da golik bereziena?

Ezin dut aukeratu, bakoitza berezia da eta. Beharbada, 88an Calderon estadioan 0-1 irabazi genuenean. Gijonen kontra sartutako golak ere gogoratzen ditut. Bi aldiz jokatu genuen haien aurka eta bietan 0-1 irabazi genuen.

Entrenatzaileei buruz, zer kontatuko diguzu?

Askorekin egin dut lan, baina nire bizi-tzan garrantzitsuena Iñaki Sáez izan da, berak eraman baininduen Athleticera jokatzerara. Beste alde batetik, Txetxu Rojorekin

“Nire bizitzan entrenatzaileerik garrantzitsuena Iñaki Sáez izan da zeren eta berak eraman baininduen Athleticera jolastera”

eta Jupp Heinkesekin ere oso harreman ona izan dut. Orokorrean, entrenatzaile bakoitzarengandik gauza onak ateratzen dituzu, txarrei ez diozu inportantziarik ematen.

Aurten futboleant jokatzeari utzi egin diozu. Zergatik?

Ilusioa ez da aurreko urteetako. Urte asko eman ditut futboleant jokatzen eta atsedena hartzeko unea da. Alde egiteko momentu egokiena dela pentsatzen dut.

Hemendik aurrera, zeintzuk dira zure asmoak?

Lehenengo eta behin ikasi. Futboleant jokatzeagatik gauza asko baztertuta utzi ditut eta berreskuratu nahi nituzke. Honetaz gain, behe mailako taldeak entrenatzeko aukera eman didate.

Gustatuko litzazuke Lezaman entrenatzaile izatea?

Ez dut pentsatu horretaz. Nire asmoa ez da Lezamara itzultzea, baizik eta jende gaztearekin lan egitea eta gaia nola doan ikustea.

Amaitzeko, zelako harremana duzu Deriorekin?

Ni Leioan bizi naiz eta aurten Zaragozara joango naiz. Hala ere, askotan pasatzen naiz Deriotik, familia hantxe daukat eta.

Eta Garitano peñarekin?

Oso harreman ona mantentzen dugu. Gainera gehienak lagun minak ditut. Athleticetik alde egin nuenean, laguntza handia eman zidaten.

FONTANERIA DOBARAN

Berritzatze - lanak:

- Etebizitzak
- Suteak
- Bainugelak

☎ 94 453 3860
☎ 658 75 9084

Milano, 4 - 48100 SONDKA

Inmobiliaria ETORKI

Hortiko Plaza, 1 Lezioan
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53

40160 DORO

KARMELO HAKATEKIA

BERTOKO OKELA

ETXERIKO PRODUKTUAK:

- Txortzak
- Odoloskak
- I'ntsoak
- Mihio
- Tripakak
- I'per baloiak
- elbar.

Urkiola kalea, 4
Tfona: 94 454 30 48
LN 1402

Uriko plaza - Bolunburu – Loroño – Alaio – Goikola - Uriko plaza

Bideari jarraituz, Loroño goikora helduko gara. Berrero ere, iparralderantz jarraituko dugu lehen bidegurutzeraino, eta pinudian behera eskuineko gurgidea hartuko dugu Larra baserriraino.

Orain, etxetzarretik iparralderantz doan gurgidea hartuko dugu. Gaztelumendi aurrez aurre dugu: inguruan pinuak, arka-ziak eta haritzak. Azken haritzean zuzeko hesi bat gainditu eta trokarroko beresirantz goaz. Gurgidea bidezidor bihurtzen da eta sahats eta haritz artetik erreka helduko gara. Zeharkatu eta aldapan behera joango gara ezkerreko barrenetik gaztainondo, haritz, arkazi, arte eta lizar artean.

Ostera, 20 bat metro behera eginez, arkaziak nagusi diren gune bat ikus dezakegu. Halaber, hesi ondotik jarraituz eta beste errekatxo bat zeharkatu ondoren pinudia aurkituko dugu. Beti erreka ezkerretik beherantz jarraituko dugu, arkazi, hurritz eta haritz artean, aipatutako errekatxo biek bat egin arte.

Anguleri jauregia

Baliteke Zugaztitarren dorretxe zaharra kokaturik zegoen lekuan XVII. mende erdialde-
ra eraikitako jauretxea izatea. 177an berreraikia izan zen. Jauregi honek Meabetarren armaria du ikusgai etxe osteko ate gainean.



Ekdialderantz jarraituz, erreka pinudian sartzen da. Bi hesi gainditu eta gero txabola bat aurkituko dugu. Beronen ipar-ekialderantz dagoen gurgidetik beste errekatxo bat zeharkatu eta metro gutxitara S. Joan baselizaren hondakinak topatuko ditugu.

Bideari jarraituko diogu Alaio auzunera heldu arte. Hemen Errepublika garaian egin eta ia erorita dagoen auzo eskola bat ere ikusi ahal izango dugu. Hemendik hego-mendebalderantz dagoen baserrira jo behar dugu. Bertara goazela, bi edo hiru aldiz alanbrezko hesiak zeharkatu beharko ditugu Gangoiti baserrira ailegatzeko.

Baseri honen mendebaldera dagoen trokarrora abiatuko gara errekaekin topo egin arte. Erreka ezkerretik jarraituko dugu. Pinu ugari badago ere, pagoak, haritzak, lizarrak eta makalen bat ikusi ahal izango ditugu.

Pinudetik irteterakoan, Goikola auzunetik 500 metrotara aurkitzen gara. Segi erreka bazterretik eta eskuinetara ikusten dugun lehen baserria Ametza da.

Bidatzak eta ibilbideak Larrabetzun zehar liburutik ateratako informazioa



Bolunburu baserria

XVI. mendeko estiloko eraikina, abeltzaintzarako egina; beheko aldean korta, lehenengo solairuan bizilekua eta bigarrenean lastatia ditu.

SENGAIAL TERZIA
KIRULETAKO ZARRAKIA
1515/18

Nocho & Aitziber
Biritinaga

Perretako, 6
48176 ZAMUDIO Telefono: 94 403 72 81

BIRITXI
Kontuzkizun eta Teratila

Perretako, 6
48176 ZAMUDIO Teln: 94 403 72 80
94 403 72 82

CB
Bereziak eta Belen
estetika - solarluma

C/ Perretako, 1 - 6.a
Teln: 94 403 72 80
94 403 72 81

Sukaldaritza

ETXEKO SUKALDARITZA

TXIPIROIAK

(Osagaiak 4 lagunentzat)

- Kilo 1 txipiroi
- Kinpula
- Zanahorie
- Berakatza
- Porrue
- Oliba olio birjina
- Piper berdea
- Tomatea

Prestatzeko modua

Lau bat koilarakada oliba olio ipini presiozko kazuela batean. Txikitu kinpula handi bat, hiru berakatz atal, zanahori bi, porru bat (berdea kenduta), piper berde bi eta tomate heldu bat eta ipini bigunduten. Hau apur bat bigunduta dagoenean, bota txipiroiak garbituta. Kazuela itxi eta bost bat minutuan egosten euki. Atara txipiroiak lurrezko kazuela batera eta bota ogi azal apur bat eta lau tinte sobre (naturala ez badaukazu) berdura artera. Euki hamar minutuan irakiten eta pasatu berdura guztia txinotik txipiroian gainera. Hau guztia euki beste bost bat minutuan irakiten.



Mari Tere Onaindia



FOIE GAINA, ONDDOEKIN

Osagaiak

Foie fresko erdia (ahate-foie)
150 gr. onddo (xafiak)
moldeko ogi-xerra bi
olioa
Saltsarako: kipula erdia
porru erdia
2 dl Pedro Ximenez ardo
3 dl okela-salda

Prestatzeko modua

Saltsa: Lehenengo eta behin, kipula eta porrua erdi-egosi behar ditugu. Gero Pedro Ximenez gehitu eta nahastutakoa zukutu edo gutxituko dugu okela-salda botatzeko. Minutu batzuetan irakiten izango dugu eta birrintu egingo dugu.

Foie eta onddoak gatzaz eta piperraz ondu ostean, sutan gorrituko ditugu. Ogi-xerrak hartu eta biribil itxura emango diegu. Olioaz frijituko ditugu.

Platera egiteko:

Ogi-xerra bakoitza foie zabalduko dugu eta onddoak jarriko ditugu. Ondoren, beste kapa bat foie eta onddo gehituko dugu eta hiru minutuan labean sartuko dugu. Azkenean, saltsa botako dugu.



ARTIZAR
MARKOA JARTZEKO TAI ERRA

Justo Aguirre, 3
Tfn. 94 453 01 50

48150 SONDIKA
Bizkaia

Amaketakako
Abierto los 7 días de la semana

- Eguneko Menuak
- Kazolatxoak
- Ollaskoa Erreta
- Karta Zabala

Umbe Kalea, 1 Bajo - DERIO
Tfn. 944 540 106

LIBURUAK

"Roke izeneko komuna"

Antton Dueso

Nikolas aitonaren baserrian dago oporrak igarotzen. Handik eta hemendik ibiliz, behin ganbarara igo eta hitz egiten dakien Roke komunarekin topatuko da.

"Inesaren balada"

Hasier Etxeberria

Abenturazko nobela hau XVIII. mendean kokatzen da.

Kortsario eta piraten artean, protagonista dan Inesaren ihesaldi eta asmoen munduan sartzeko aukera dogu.

DISKOAK

"Elearen lainoan"

Olatz Zugasti

Olatz Zugastiren hirugarren diskoa. Berak sortutako hamabi kantaz osatuta dago. Hitzak Itxaro Borda, Henriette Aire eta Olatz Zugastirenak dira.

"Expedición"

Silvio Rodriguez

Hiru urtean ezer argitaratu barik egon ostean, hau da Silvio Rodriguezek ateratako musika. Hamabi abestiz osatuta, kubatar konpositoreak aspaldian idatzi baina argitaratu bako abestiak eskeintzen deuskuz.

SOLUZIOA



DENBORA PASA

6 ezberdintasunak

Hirudi bien artean aurkitu 6 ezberdintasun. Zein da Loiuiko benetako eleiza?



UMOREA

ARRAUTZA

Esan zuen andereñoak:

-Oilar batek arrautza bat egiten badu Euskal Herriaren eta Frantziaren arteko mugan, norentzat izango da?

Erantzuten du Josebak:

-Euskal Herrikoentzat.

Orduan, andereñoak galdetzen dio:

-Zergatik Joseba?

Josebak erantzuten du:

-Euskal Herrikoek arrautza gehiago daukagulako.

Andereñoak esaten dio barre eginez:

-Oilarrek ez dute arrautzarik egiten.

ESAERA ZAHARRA

**HOBE DA
OINEZ ETA
SEGURORA
ETA EZ
ZALDIZ ETA
ZULORA!!!**

Askotan, presaka ibiltzea okerragoa izaten da. Hobe izaten da patxadan ibili eta egiten duguna jakinaren gainean egitea. Gehienetan, presakako lanak ez du ondo-ri onik ekartzen.

AGENDA

LEZAMA

Eskualdeko pilota txapelketam hasiera. Urritik aurrera, barikuro, 20:00etan. Lezamako frontoian. Lezamako Pilota Elkarteak antolatuta.

Aloñarako mendi irteera. Urriaren 13an, goizeko 8:30etan. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Gorbeiarako mendi irteera. Urriaren 27an, goizeko 8:30etan. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Tricicleren azken ikuskizuna kuste-ko irteera. Urriaren 26an. Arriaga antzokian. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26.

Zaragozarako bidaia. Azaroaren 1etik 3ra arte. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26.

Nafarroa oinezako irteera. Urriaren 20an. Galdetu Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26.

Seme-alaben heziketa eta haiekiko komunikazio ikastaroa. Azaroko martitzenetan. Galdetu Txorierriko Mankomunitatean 94.454.03.50 (Mireia) edo Lezamako Udal Liburutegian 94.455.61.26.

ZAMUDIO

Kilometroak-erako irteera. Urriaren 6an. Zamudioko Udalak antolatuta.

Nafarroa oinezako irteera. Urriaren 20an. Zamudioko Udalak antolatuta.

"Irudiak". Pedro Txillidaren erakusketa. Urriaren 7tik 20ra bitartean. Zamudiotorren. Zamudioko Udalak antolatuta.

Erlaxazio lantegia. Eguenetan, 19.00etatik 21.00etara. Zamudioko eskolan. Zamudioko Udalak antolatuta. Prezioa: 6 euro. Urriaren 24an hasiko da.

Areto-dantzak. Martitzenetan, 19.30etatik 21.30etara, eta zapatuetan, 10.00etatik 11.30etara eta 11.30etatik 13.00etara. Prezioa: 24.04 euro. Zamudioko Udalak antolatuta.

Zamudioko ortuari eta abere azoka. Azaroaren 3an.

Bideo emanaldiak. Bariku guztietan, 19.30etan umeentzat eta 21.00etan nagusientzat. Zamudioko Udalak antolatuta.

Tricicleren ikuskizuna kuste-ko irteera. Urriaren 17an, 20.00etan, eta urriaren 19an, 19,30etan. Prezioa: 15 euro (sarrera + busa). Zamudioko Udalak antolatuta.

LOIU

Ganadu azoka. Urriaren 13an eta 20an
Eskulangintza eta gastronomia azoka. Urriaren 20an

SONDIKA

Warner Bros Parkera txangoa. Urriaren 5 eta 6an

Kilometroak-erako irteera. Urriaren 6an
Nafarra oinez-erako irteera. Urriaren 20an

DERIO

San Mikel Deuna jaiak. Irailaren 27tik urriaren 6ra.

Egitaraua 5. orrialdean

Euskal ezkontza. Urriaren 5ean
Probaleku berriaren inaugurazioa. Urriaren 26an.



KURTSOAK, IKASTAROAK ETA TAILERRAK

Aurreko urteetan bezala, Txorierriko udalek hainbat urte osorako tailerrak eta ikastaroak programatu egin dituzte. Adibidez, Loiu eta Zamudion bai Saloi dantzaren kurtsoak bai erlajazioa tailerrak, batak beste, egongo dira. Era berean, Larrabetzuko udalak pandero eta eskularen ikastaroa antolatu du.

Beste aldetik, Sondikan eta Lezaman familia giroan komunikazioari buruzko emanaldiak izango dituzu eta Derion argazkigintza tailerrak.

Dena den, hau aurrerapen txikia baino ez da udal bakoitzak ekitaldi gehiago proposatzen dizu eta. Interesatuta bazaude hurbildu eta eskatu informazioa. Anima zaitetz!!!

HARATEGIA
J. ELORRIAGA
Etsako berezitasuna: bertutetuak

Iturriztasun, 7 linea: 94 455 89 41 LARRABETZU

**ALDIZKARIAN
PUBLIZITATEA
JARRI GURA
DUENAK DEITU
BAINO EZ DU
EGIN BEHAR**

**TLFNOA: 94 452 34 47
686 58 92 38**

E-MAIL: aikortxori@yahoo.es

VASCOLAC S.L.
48170 Zamudio (Bizkaia)
94 452 23 00 ifnua

Etorkian batutako esneogaz egunean eguneko GAILLA gazta tres
ATUTXA San Jakutxoak eta kriketok
BANAHETA DENDETARA, JATEXETARA,
TABERNETARA ETA JATOKJETARA
Hainbat euskal produktuen distribuzioa;
edonon molako konkibok, txerrikok, marbilak, bakloak, palak



Behargintza
Udalen Enplegu Zentroa
Centro Municipal de Apoyo al Empleo



Txorierri, S.L.



Iturialdeko Foroa
Álava
Diputación Foral de Álava
Departamento de Empleo y Promoción



DERIO



LARRABETZU



LEZAMA



LOIU



SONDIKA



ZAMUDIO



**TXORIERRIKO
MAYORALDATEA**



BEHARGINTZA, TXORIERRIKO ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZAREN ALDEKO EKIMENA

NORTZUK GARA?

BEHARGINTZA TXORIERRI S.L. irabazteko asmorik gabeko Txorierriko sei udalek osaturiko elkarte publikoa da.

Egunero Txorierriko empresa eta langabe-tuentzat lan egiten dugu

NON GAUDE?

Behargintza Txorierri SL
Txorierri Etorbidea, 46 • Polígono
Berreteaga 13^a
48150 SONDIKA
Tlf: 94 453 63 70 • Faxe: 94 453 13 44
E-mail: behargintza@txorierri.com
http: www.behargintzatxorierri.com



BEHARGINTZAK ESKAINTZEN DIZU:

Laguntza autoenpleguari eta enpresen sorkuntzari:

TXORIERRIKO ENPRESA IDEIEN I LEHIAKETA

Enplegua lortzeko laguntza: lan poltsa, praktika programak, lanerako orientazioa...

PRESTAKUNTZA IKASTAROAK AZKEN PLAZAK!!

Enpresei laguntza

Txorierriko ekonomia garapen sustatu eta bultzatzeko laguntza

Sarreraren

salmmenta

kutxazainetan



Ez zaitez egon ilaran itxaroten

Orain, hainbat zinema eta ikuskizunetarako sarrerak, era erraz eta erosoan lortu ditzakezu BBK-ko orotarako kutxazainetan edo 944 310 310 telefonora deituta.

bbk 